

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ELOSUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA****Elosuko urbanizazio proiektua kontratatzeke lizitazioa**

Elosuko Administrazio Batzarrak, 2016ko urriaren 29ko kontzeju irekian, klausula ekonomiko-administratiboen agiria onartu zuen, zeinak arautuko baitu Elosu urbanizatzeko obra kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko lehiaketa.

1. Erakunde esleitzaila: Elosuko Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea
  - a) Xedearen deskribapena: prozedura irekia Elosu urbanizatzeko obra kontratatzeke.
  - b) Loteak eta zenbakiak: ez.
  - c) Gauzatzeko lekua: Elosua
  - d) Gauzatzeko epea: hamabi hilabete.
3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era
  - a) Izapidetzea: arrunta.
  - b) Prozedura: irekia.
  - c) Esleipen irizpideak:
    - preziorik baxuena: gehienez, 50 puntu.
    - Berme epea luzatzea: gehienez, 5 puntu.
    - Gauzatze epea laburtzea: gehienez, 2 puntu.
    - Memoria: gehienez, 30 puntu.
    - Obraren programazioaren koherentzia: gehienez, 13 puntu.
  - d) Ikus klausula ekonomiko-administratiboen agiria, puntuazioa finkatzeko.
4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua

Lizitazio oinarria: 1.587.020,71 euro	BEZa: 333.274,35 euro
Kontratuaren aurrekontua: 1.920.295,06 euro	

5. Bermeak
  - a) Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5, BEZa aparte.
6. Agiriak eta argibideak eskuratzea
  - a) GURPIL kopia denda. Helbidea: Batzar Nagusien kalea, 59 (Arriagatik sartzen da), Gasteiz. Telefonoa: 945172687
  - b) Elosuko Administrazio Batzarra. Telefonoa: 639 401221
  - c) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna:
    - agiriei buruzko informazioa eta informazio osagarria jasotzeko eskaera, beranduenik, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 12 egun lehenago aurkeztu behar da.

Informazio gehigarria jasotzeko eskaera, beranduenik, eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 9 egun lehenago aurkeztu behar da.

7. Kontratataren berariazko betekizunak

- E taldea: obra hidraulikoak, 1 azpitaldea, C kategoria.
- G taldea: bideak eta pistak, 6 azpitaldea, C kategoria.

8. Eskaintzak aurkeztea

a) Epemuga: hogeita sei egun naturaleko epea, lizitazioaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian aipatzen direnak.

c) Aurkezteko lekua: Legutioko udaletxean (Carmen kalea, 10; PK: 01170; tel.: 945 455010; Legutio, Araba), astelehenetik ostiralera; 09:00etatik 14:00etara. d) Lizitatuzaileak eskaintzari eutsi behar dion epea: bi hilabete, eskaintzak irekitzen direnetik aurrera.

e) Aldaerak: ez

9. Eskaintzak irekitzea

a) Erakundea: Elosuko Administrazio Batzarra

b) Posta kodea eta herria: 01170 Elosua

c) Eskaintzak irekitzea: "A" gutun-azala, formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzkoa, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo hamargarren egun baliodunean egingo da, 12:00etan.

10. Beste argibide batzuk: ikus administrazio klausulen agiria

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

12. Iragarkia Europako erkidegoen egunkari ofizialera bidaltzea: ez dagokio.

Elosua, 2016ko urriaren 29a

*Lehendakaria*

*ENRIQUE BITERI GARMENDIA*